

EZKIO-ITSASO / Gaur arratsaldean antzerkia egongo da liburutegian

EZKIO-ITSASO. DV. Gaur arratsaldean, hilak 14, berriro ere izango dugu antzerkia Santa Lutzia auzoko kultur etxean, bertan kokatzen den liburutegian, hain zuzen, antzezlan hau Ezkio-Itsasoko Udalaren eta Liburutegiaren eskutik datorrelarik.

Kontrapuntu bikoteak alaituko du gaurko arratsaldea, antzerki berezi hau 6:30ean hasiko delarik. Zergatik berezia? Antzezlan ez delako ez euskaraz ez gaztelaniaz, mutua baizik.

Un perro escondido edo Txakur bat ezkutatuta izenburu gisa duen antzezlan hau laburra izango da, ordu erdi aldeko iraupena izango duelarik. Dena den, eta izango den ordua kontutan hartuz, antzezlan hau amaitu ondoren eta eguna lagunartean eta pozik bukatzeko, kafea eta pastak hartzeko aukera egongo da liburutegian bertan